

“MAISU BATEK EZ DU BIOGRAFIARIK”

Poztu nintzen joan den uztailean [Tabakaleran izandako elkarrizketako](#) lehen galderak biografiarekin zerikusia izan zuenean: “Nolakoa izan zen taitxiarekin izan zenuen enkontrua; zer suposatu zuen zure bizitzarako?”. Konturatzen naiz zein hari fin eta hauskorrekin egina den biografia bat; edozein aldaketatxok –denboran nahiz espazioan– eduki zezakeen eragin erabatekoa; zein ezberdina zatekeen nire historia urte batzuk lehenago edo geroago jaioa banintz; nire lehengusuen edo auzokoen familia batean jaioa; emakume gizon orde, eta abar. Eta gauza bera aldagai sozialei erreparatuta: beste paisaia batekoa izan banintz, beste historia hurbil batekoa, beste lurraldea batekoa, beste kultura batekoa... Gero eta ozenago, gero eta bortitzago aldarrikatzen bazaigu ere –“eraiki ezazu zeure bizitza; zeu zara zure destinoaren nagusia...”– argi dut gure eginahal nagusia dela emandako aldagai haiek destino bilakatzea, ez dugula besterako askatasunik edo betebeharririk.

Horregatik egiten zait fantasmala, susmagarria oso, biografiarik izango ez balu bezala, historia partikularrik gabe aurkezten zaigun edonor. Hori eginez, gainera, Egia Absolutu baten izenean Salbazioa agintzen digunean, badakit elizgizon baten aurrean nagoela: bizitzak duen alderik tratagaitzenarekin –kalteberatasunarekin, eritasunarekin, hilkortasunarekin...– trafikatzeko duen merkataritza baten aurrean; gizatasunaz mamitzen gaituen horrekin ari dena hain justu. Errealizazioaren izenean horren guztiaren gainetik jartzen saiatzen dena gizatasuna lapurtzen ari zaigu. Erljio guztien joera dugu hori, baina bada alderik puntu horretan kristautasunaren eta Ekialdeko jakituria zenbaiten artean, kristautasunak data zehatz batzuk jarri baitzituen bere abiapuntuan: Jainkoaren beraren haragitzearena, haren heriotzarena, berpizkundearena...

Ez zitzaidan ustekabean pasa Yuan Liminen inguruko detaile xeble bat: inork ezin zidan esan zein urtetan jaioa zen, ezta bere hurbileneko ikasleek ere. Oso ohikoak dira Txinan “Hilezkorren” istorioak hango ipuinetan, “taoista hilezkorrak” ageri dira batez ere han eta hemen. Wudang Xuanwu Maisuen leinuko 15.a aurkezten zaigu Yuan Limin, Wudan mendietako Zhang Sanfeng monasterioko abade (Zhang Sanfeng taitxiaren fundatzaile taoista mitiko gisa da ezaguna), eta haren diskurtsoa erabat erlijioso da: “Taitxia milaka urteko jakituria taoistaren adierazpena da, filosofia txinatarraren jakituria. Zeru-Lurraren arteko izaki bakan eta ordezkaezinak gara, eta horretaz jabetzea ahalbidetzen digu taitxiaren praktikak; gorputzaren eta gogoaren arteko arrakala osatzea dakar, gorputzaren gaixotasunak sendatuz eta ezjakintasuna eta berekoikeria geure baitatik desagerraraziz, jakintsu eta zoriontsu bilaka gaitzen”. *Erljio* dela diot, Salbazio bat agintzen baitigu termino absolutuetan, hainbat errituren edo liturgiaren bitartez –taitxia, kasu horretan– eta hainbat sinesmen kosmogonikotan oinarria hartuz –“Txinako milaka urteko jakituria taoismoak jaso”–. Ez da harrizkoa gisa horretako erlijio baten ordezkari batek bere burua denboraz kanpo kokatzea eta bere

bizitzaz esaten digun gauza bakarra izatea Maisuaren eskuetan izan zela jarria haurra zenean, Maisuak beregan zeraman jakituria arkanoa eskaini ziola, zeina egun munduan zehar ospatu eta jendeari jakinarazi behar dion. “Maestro” dio haren izenaren ondoan gure elkarrizketan agertzen den errotuluak; gisa horretako *maisú* batek ezin du, berez, biografia bat eduki.

Guztiz aurkako jarrera da nirea. Baina ez zentzu osagarri batean, *yin* eta *yang* polaritateak adierazten duen eran, baizik eta salatu behar den iruzur baten aurrean ipintzen denarenean baizik. Nire biografia aipatzen hasi nuen agerraldia, zein baldintza partikularrek bultzatuta murgildu nintzen taitxia beregan zuen Ekialde jakin batean. Saiatu nintzen zertzelada batzuk eskaintzen indarrean dugun “kirol-jendarte mobilizatuan”¹, kirolari eta ongizateari dagokien txokoan taitxiak egun betetzen duen lekua ulertze aldera. Bere jatorrizko Txinan, XX. mendeko historia asaldagarriaren parte izan da taitxia ere, eta ezin liteke bera ulertu 1900eko *boxeolarien matxinada*, maoismoaren garaipena eta hark ezarritako masa-gimnasia –taitxia bera– edo oraino indarrean den azken hamarkadako Falun Dafa bezalako mugimenduen errepresiotik aparte. Yuan Liminek Txinari buruz esan zuen gauza bakarra izan zen “atzean geratu da ezegonkortasuna, eta kultura berrezartzen hasia da”. Ez zuen ezer esaterik “Estatua arriskuan jartzea” salaketapean egun atxilotuak, torturatuak, erailak, kontzentrazio-esparruetan kartzelaratuak diren milaka eta milaka lagunengandik; haiek ere talde erlijioso batekoak dira eta berak proposatzen dituen ariketa bertsuak praktikatzeko dituzte. Bestalde, Wudang mendi sakratua parke tematiko bilakatu da, eta tenpluak, bisitarientzako guneak².

Ez nuen erantzunik jaso ere “ura bezala malgutu zaitezte” diskurtsoaren salaketa egin nuenean. Bilboko “sasi-saolinaren” kasua hurbilegi dugu gisa horretako mezuak modu inozoan onartzeko. Maisu batek erakustaldiei uko egiten diela esan nion, eta uko egiten diola, halaber, ezerk ukituko ez duen botere erasoezinen edota osasun perfektuaren edozein promesari. Horiek esateak ez zuen haren interesik jaso, maisuaren beraren eldarnioa elikatzeaz ari nintzelarik ere.

Maisuaren lekua onartu nuen nire aldetik –*ulertzekoa* denez, nire izenaren ondoko errotuluak “profesor de taichichuan” dio– eta kokapen horrek ezartzen dituen baldintzez aritu nintzen: arduraz hartzeaz ikasle orok inplizituki egiten duen demanda; uko egiteaz onurak agintzeari eta distantzia gaindiezinak jartzeari, haiek aipaturiko eldarnioak elikatze bako bako ez dutenez... Horrexegatik da ezinbesteko maisu batentzat biografia bat edukitzea; edozein ikasketa sakoneko harremanek berezko duten eskariak eta baldintzak ulertu eta kudeatu ahal izateko, maisuak bere buruaren heriotza sinbolikoa zer den ondo ikasia behar du. Baina “Maisu batek ez du

¹ Zentzu horretan, Tabakaleran martxan den *Ariketak* ekimenaren abiapuntuan eskaini nuenaren jarraipen gisa uler liteke nire gogoeta: [Eros, Thimos eta Kirol Mobilizazioa. Hiru galdera eta bi gehigarri Ekialde Urruneko begirada batetik.](#)

² Ildo hori jorratu dut *Taichí en el parque temático* artikuluan.

biografiarik” nonbait; bera hilezkortasunaren ez-tietan bizi da dagoeneko, ohiko denboraren eta espazioaren gainetik.

Zer pentsa ematen dit halako diskurtso batek –*eskaintza* batek– bere lekua lortu izanak Tabakalera bezalako “Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentro” batean. Beste nonbait esplikatut dut nire hipotesia³: gero eta errotuagoak ditugun instituzio hauek gero eta *parquetematizaturiko* bizimodu baten parte dira. Bizimodu horretan “aberastasun turistiko” gisa baloratzen da kultura bera, lehenik eta behin, non turistak ez dira kanpokoak soilik, pasian dabiltzanak, geu guztiak baizik. Parke tematikoan, jakiteko den guztia dago gure esku, eta ez zaigu ezer eskatzen jakintza horren truke. Espektakuluaren agertokiak ziztu bizian eta etengabe aldatzen dira –Donostia bezalako hiri baten eskaintza kulturala zorabiatzeko modukoa da– baina guztiek dute ezerezaren zapore hutsala: dena bizkor eta azalean gertatu behar da, ezer gerta ez dadin. Ingurugiro horretan –aipatu nuen “elkarrizketan”– oso urriak dira aukerak, taitxia bezalako ariketa batek ondorio sakonak eragin ditzan. Botere harreman autoritarioek eginak gaudenez eta horrek bereziki sentiberak bilakatzen gaituenez edozein harreman hierarkikoren aurrean, gaitza da ulertzea ere ikasketa harreman batek zer eska dezakeen: desaktibatua dugu aukera bera gertatu aurretik. Horrexegatik Jakituria eta Zoriona agintzen digun Maisu batek aurreko guztiaren ezaxola hasi behar du bere lana: biografia bat duenik ere ukatuz.

Juan Gorostidi

³ Lehen aipaturiko artikulua ari naiz.